

kultura

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak. Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara. Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia. Hau da gure kultura.

www.bbk.es

bbk

Legre gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Bategin

2001ko AZAROA
38. zkia. 125 pzta.



GAZTEDIKO
BELAUNALDIAK
BATEGINIK
ARRIAGA ANTZOKIAN
DANTZAN

RAMADANA
MAHATSERRIAN

'AGIANTZA',
GIZARTE
BAZTERKETAREN
AURKAKO
KONPROMISOA

**Eladio Montiel,
Otxarkoagako
abesbatzaren
zuzendaria**



Mataloboseko garbileku zaharrera

Eulalia Abaitua andra ikaragarri handiaren erretratu sorta zabaletik beste aletxu bat dakargu geure orriotara. XIX. eta XX. mendeen arteko kantoian egin ebazan bere argazkiak eta, sarritan, sasoi zahar hareetako mahatsorriok agertuten deuskuz. Oraingo hontan Begoñako Mataloboseko garbilekura joan-etorrian topadu diran andra bi eta umetxu bat dekoguz. Andrazkoak berbetan lotu dira aldean arropa bete ontziak daroiezela. Matalobos gaur egungo Txurdinagako alderdian egoan, Txomin Garat eta Gabriel Aresti kaleak elkartzen diren sakonean. Bertatik errekatxa jaisten zan eta hantxe batzen zirian andrak arropa garbiketa egiteko. Beste batean jantziak garbituten ikusiko doguz...

Argazkia: Euskal Museoa paratutako "Gure aurreko andrak" liburutik hartu dogu.



▶ Iritzia	4	▶ Inkesta	19
▶ Ramadana Mahatserrian	5	▶ Mahatsberriak	20
▶ Begoña eta Euskerea	8	▶ Hezkuntza	24
▶ Taldea: Agiantza	10	▶ Mendi Ibilbidea	26
▶ Egoitz Lorenzo	12	▶ Gaztedi: 50. urteurreneko jaialdia ..	28
▶ Elkarrizketa: Eladio Montiel	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30

Oingo Bertin superbibientiekaz beterik dator gero! Bata ez dakitt nongo isla batera joan dala ez dakitt ze konkurso eitteko ta ez dakitt zenbet diru ekarteko (akabuen gure zeuena baino gitxidxago ziertoena), bestie Otxarkoagako koroan ez dakitt zenbet urte ein dittuena kantaten edo kantau asoten. Bestiek etze barridxen erdidxen ondiñokarren txalea daukienak, ta kamiño generalan alboan holango mansiñoan bixi direxenak, gero esan lei txaleak Negurik daozele, baie hamen bere bai, ta elpalasiobakingan besteko eleganteak gero! Bestiek, azkenokaz Binladen ta enparauek direzela-ta ein den kristoagaz bere, Solokoe-tzeko meskiten erresaten segitten daure, ta

ganera ingerukoak ta hain ingerukoak ez direzenak aikune txarra ipinten deutziela aguantaten: "honeik bere talibanak, edo integristak edo txiitak edo zezer halango ixengo direz" pentzaten, ta norbera bittartien lau txakur handi eitteko biharra ta biharra, ta eskerrak bañen batek ez badotzuz papelak eskatuten, aikejoderse!
Ta esango dozue superbibiente berbie ez dala euskerie, halan ixengo da, ta euskeraz esatearren ez dakitt Euskaltzaindiak zer esango dauen (plaza barritik aspaldidxen ez dot osterarik ein ta...) baie hamen zer dekogun ikusitte, bixi-edo esango neuke. Batzuek holan, bestiek halan, bixi-edo.

Firmatue: Beste bixiedo bat

ARTETA KALEAREN ESANGURAREN INGURUAN



Aurelio Arteta margolariaren kalea Begoñako eleizateko Santutxu aldean dago.

Kale honek Allenderen kale partikularrean dau hasikerea, eta Landaburu baserriaren kalean dau amaiera.

Aurelio Arteta Errazti margolari bilbotarra 1879. urtean jaio zan, eta 1940an hil. Bilboko uribilduak emon dituan artelari garrantzitsuenetarikoa da. Ikasketak egiten Arte eta Lanbideen Eskolan hasi zan Bilbon, eta

ondorik Valladoliden jarraitu eban, beraren familiak bizimodua hara aldatu eban eta.

Handik Madrilera igaro zan, eta uri hartan estutasun handiak izan zituan diruaren eretzean, harik eta 23 urteak bete arte, orduan Bizkaiko Foru Aldundiaren pentsinoa jiratu eban-eta, Parisen ikasteko. Uri honetatik Italiara aldatu zan.

1906. urtean Bilbora etorri zan ostera bere, eta bertan beraren izena erakusketa baten bidez ezagun egin zan: "La despedida de las lanchas" eta "Maria" dira sasoi horretako margorik ederenetakoak.

1921. urtean Banco de Bilbaoren Madrilgo egoitza janzten dauan irudia margotu eban. 1924tik 1929ra, Bilboko Arte Modernoaren Museoa zuzendu eban. 1930ean Espainiako Margo-lanen Sari Nagusia irabazi eban, eta 1932. urtean Espainiako Erakusketaren lehenengo domina irabazi eban, "Los hombres del mar" lanagaz. 1936ko gudua isiotu zanean, bera Valentziaratu zan, eta handik erbesteratu. Behar gorrian bizi izan zan, harik eta Mexikora joan zan arte. Mexikon hil zan 61 urte zituela ibilgailu batek harrapatuta.

GOTZON LOBERA REVILLA


ARTXANDAKO FUNIKULARRA

Hurrean baso eta begiraleku ederrez betetako muino eta mendiak dauzkaten hiriek funikularrak jarri ohi dituzte. Bilbok ere horrelaxe egin zuen. 1913ean hasi ziren obrak eta 1915eko urriaren 7an inauguratu zuten.

Urte luzeotan Artxandara igoteko modurik errazena eta logikoena izan da. Artxandak, bere egoerari esker, astialdirako aukera handiak ematen ditu, baita Bilbo batetik eta Txori-herri bestetik ikusteko toki paregabeak eskaini ere.

Hiru etenaldi euki ditu funikularrak. 1937ko ekainaren 18ko bonbardaketak bi ibilgailuetako bat kaltetu zuen. Bigarrena, luzeena, 1976an hasi zen, istripu larri batek instalazioa hondatu zuenean. Urte batzuetan geldirik egon ostean, erabat zaharberitu zuten, bultzatzeko sistema teknologiarik aurreratuenaz hornitu zuten eta 1983ko ekainaren 17an atzera ere abian jarri zuten, aldapan gora eta behera. 1983ko abuztuko uriolek beste etenalditxo bat eragin zuten baina urte hartako azaroaren 4ean ostera ere zerbitzuan ipini zuten.

Gaur egun ez da jende askoren komunikabidea. Hein batean hori da seinalizazio gutxi dagoelako zerbitzu hori iragartzeko. Beste arrazoi bat kotxeen gehiegizko erabilpena da, batez ere, Artxandako goialdea legez, oinez ibiltzeko gordeta egon beharko lirakeen eremuetan. Horrela makaltzen zaigu Artxandara igoteko modurik egokien eta tradizionalena.



IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**




**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea
ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas
ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi.
Joseba Barrenetxea
KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz
ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martinez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.200



Ramadana Mahatserrian

Islamaren inguruko hainbat kontu entzuten diren garai hauetan, hamar urtez mahatserrian dagoen meskita ezagutzeko parada izan dugu. Fika kaleko hamabigarren zenbakira gerturatu eta *Elkarte Islamikoa Meskita Badr* delakoarekin egiten dugu topo. Ez da, jakina, argazki horretako meskitaren parekoa, lonja bat baino. Bertonekook elkarte hau osatzen dutenen inguruan gehiago jakiteko irrikiz bertara gerturatu eta solasaldi beroa izan genuen Abdellalif Bapzlzuli, Badr meskitako lehendakari ordearekin.


Testua: *Irene Berro*

Hiru Galeri Meskita, Edime

**Sastriera
EDRO**
**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**
Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.topez@navegalia.com
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**
GABRIEL RESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
94 412 82 74

CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak
Sarean, jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketa...
Aita Pernet, 1
48004 Santutxu
Bilbo
Tfnoa/faxa: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net



ELKARTE ISLAMIKOA MESKITA BADR hirurehun lagunek inguru osatzen dute. 1990tik biltzen dira bertan eta elkar- tearen hazkundearen ondorioz txiki geratzen zaien loka- laren osagarri gisa, ondoko lonja hartu dute emakumeen meskita deritzona egiteko. Badr meskita ez da bakar- ra Bilbon, San Francisco auzoan beste bat kokatzen baita. Bi hauetaz gain, bada beste bat Mungian.

Haien artean lotura estua dute. Izan ere, Mungian biltzen direnak lehen Mahatserrira etortzen ziren ostiralero denek elkarrekin otoitz egiteko. Baina arestian esan beza- la, elkarte handituz doa eta lekua txiki geratu zaie. Guz- tiak biltzeko behar beste lekurik ez dute, beraz.

Badr meskitak ez du inolako diru laguntzarik jaso- tzen. Eusko Jaurlaritzari bere garaian eskatu zioten baina honek ez zuen eskaera onartu. Ondorioz, autogestioa da islamdar gune hau aurrera ateratzeko bidea. Elkarteko kide bakoitzak zilegi duen ekarpen ekonomikoa egiten du. Horretaz baliatuz, emakumezkoen meskita egiten ari diren bitartean gizonezkoena ere atontzen ari dira. Biak lotuaz bafleak eta kamara bat pantailarekin ipini nahi dute korana irakurtzerakoan imanaren hitzak eta irudia Badr osotik entzun eta ikusi ahal izateko.

Meskitak eskaintzen dituen zerbitzuen artean, iman- ak gidaturiko otoitzak dira nagusi baina aurrerantzean eta behin prestakuntza guztiak egoki dituztenean, umeei zuzenduriko arabiar eta erlijio klaseak emateko asmoa

dute. Baita emakumei zuzen- duriko hitzaldiak ere.

Mezkiten kontu honi dago- kionez, Frantzia eta Euskal Herriaren artean alde handia omen dago. Bertan, diru ara- zoak direla medio, meskitak gune xumeetan kokatzen dira aitatutako herrialdean azpiegi- tura prestatuagoak dituzten bitartean. Hori dela eta, Maha- tserriko meskitak Europa osoko elkarte islamiko ba- tzuengadik hainbat diru lagun- tza jaso ditu. Horrez gain, administrazioan edota beste lanposturen batean arabiar- rik ikus daitezke Europar zehar, ez ordea, Mahatserrian ezta Euskal Herri osoan ere. Zentzu horretan, diskriminazio kutsu bat egon daitekeela aitortzen du Abdllalif Bapzlulik. Beste

persona batzuk baino oztopo gehiago izaten dituztela, apika.

Elkatea osatzen dutenen artean, % 50 a hego-sahara- tarrak dira. Hala ere, badira islamara bihurtu diren eus- kaldunak ere. Hogeita eta hogeita bat urtetako bi emakume dira bereziki kristau erlijioa utzi eta islama jarraitzea era- baki dutenak, eta izena ere aldatu dute usadio arabiarre- tara hobeki moldatuz.

IRAILEAN EEBBTAN IZANDAKO ERASOEN INGURUAN....


“EEBBTan izandako atentatuak gaitzesten ditugu hiritar soil asko hil zirelako bertan eta horrek ez luke horrela izan behar. Hala ere, pentsatu beharko genuke zergatik gertatu den hau. Zer egin duten hainbat urtez mundu osoan zehar EEBBek ondoren eraso hau nozitzeko. Terrorismoaz mintzo dira eta beraiek gauza bera egiten dute Afganistanen. Inolako erantzukizunik eta babesik ez duen jendea hiltzen ari dira. Gainera mundu osoan zehar beren gizarte eredia inposatu nahi dute gainontzeko herrialdeek nahi dutena kontutan hartu gabe”. Horrela ikusten dute Bilboaldeko islamdarrok.

Honen ildotik, irailaren 11ko jazoeren ondorioz Mahatserrian eta Bilbon oro har tratu aldaketa igarri duten galde egin genion eta umoretsu ezetz erantzun

zuen. “Agian lanean bromaren bat edo beste egin diz- kidate baina ongi ezagutzen naute eta hori besterik ez”. Bere ustez, “Euskal Herriak ere gatazka bat bizi du eta baliteke horregatik hemengo jendeak arazoaren muine- ra jotzea, agian estatuko beste edozein lekutan egiten ez duten bezala. Ondorioz, elkarteko inor ez du arazorik izan ez lanean ezta kalean ere ez”.

RAMADAN GARAIA DA ETA...

Musulmanen egutegiko bederatzigarren hila da hau. Baraua da sasoi honetako ezaugarri nagusia, musul-



jateagatik 50.000 pezetatoko isuna jarri dioten kide baten kasua ezagutzen dut.

Musulmana ez den jendeak ramadana eguna- ren zati batean baraua egiten den denboraldi gisa ikus dezake baina musulman batek sakonago bizi- ko du. Guretzat autokontrol kontu bat ere bada. Alaren aurrean musulmanak duen autokontrola, alegia.

Ramadanaren inguruan Mahatserrian eta Euskal Herrian orokorrean oraindik asko egiteke dagoela azpimarratu zuen Abdellalif-ek, izan ere Europako zenbait herrialdeek musulmanari denboraldi hau erraztearren pausuk eman baitituzte.

man guztiak bete beharrekoa. Goizal- detik arratsalde arte irauten du barauak eta tarte horretan debekatua duten jatea, edatea, tabakoa erretzea, gorpuz- ta usain gozoez lurrintzea eta sexu harremanak izatea.

Zuentzat hilabete sakratua den hau, zelan bizi duzuen zuen sorte- rritik hain hurrin eta erlijio eta ohi- tura biziki desberdinak dituen Mahatserrian?

Abdellalif Bapzlulizuli: Ahalik eta ondoen egiten saiatzen gara baina askotan ez da erreza. Aldea igartzen da arabiar batetik europar batetara. Hemen eragozpen batzuekin egiten dugu topo. Ramadanean egunean zehar ez dugu ezertxo ere jaten eta arratsaldeko 18:30ak aldera baraua eteten dugu eta jan ohi dugu. Guk une hori ospakizun gisa bizi dugu eta enpresa askotan lanean diharduten musulmanei ez diete ordu horretan etenaldi bat egiten uzten jan ahal izateko. Ondorioz, askok lan egiten duten bitartean otarteko bat edo jaten dute baina ez da berdin. Guk baraua apur- tzen dugun une horretan erlaxaturik egon behar dugu eta baldintza horie- tan ez da posible. Gainera lanean

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
 Pintura lanak etxaurre eta patioetan
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak
 Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

Bikoitz
 ARROPAK ★
 ZILARRA C
 OPARIK ★
 Part. Arsuaga SANTUTXU
 Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
 bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

MESÓN GURETXE
 Santutxuko poteo gunean

Pa...Ya JO TA KE OTXARKOAGA EUSKALDUNDU ARTE

OTXARKOAGA
Pa...Yak baditu alternatibak

Zurbarango auzoa izeneko etxe-kooperatiba Artxanda mendiko magalean sortu zan orain dala 75 urte. Tomas Bilbao arkitektoak eraiki eban neo-euskaldun estiloko etxadi hau, eta bere itxura dotore eta señorialagaitik gaur egun Zurbarango Txaletak izenagaz ezagutzen doguz auzuneon dagozan 74 etxeak.

Begoña eta Euskerea

Koldo Urrutikoetxea eta Igor Martin de Vidales

ZURBARANGO TXALETAK



Zurbaran auzoko etxeak 1924. urtean hasi ziran eraikitzen Primo de Riveraren diktadurapean eta 1926an auzo izena emon eutsen. Urte hareetan Bilboren moduko uri haundi eta industrialetan etxebizitza lortzeko arazo haundiak egoazan eta problema horreek konponduteko ley de casas baratas legea atera eben. Lege horren arabera etxea egin gura eben eta soldata baxua eukun langileri diru laguntza emoten jaken eta hala egin eben orduko Etxebizitza Ministerioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Zurbarango etxadi honen kooperatibistekaz. Kooperatiba hau, hain zuzen bere, soldata lar alturik ez eukun bulegariak sortu eben.

NEO-EUSKALDUN ESTILOKO ETXEAK

Etxadi honen arkitektua Tomas Bilbao izan zan eta beronek emon eutsen etxeeri dauken dotoretasuna. Auzo honetako etxe guztiak "merkeak" zeritzen arren

ez eutsien hain merke urten kooperatibisteri. Etxe guztiak famili bakarrarentzako eta neo-euskaldun estilokoak dira, eta horregaitik euren eraikintza ez zan bape merkea izan. Bertako hasierako kooperatibistak etxeak ordaindu ahal izateko benetan arazoak euki ebezan eta luzapenak eskatu behar izan ebezan.

LASAITASUNEZKO IRLA

Garai hartan etxe merkeak izan ziranak gaur egun pribilegiatuentzako txalet bihurtu dira, hirurogeigarren hamarkadaren ostean auzo horren inguruan egin dirazan etxe erraldoi horreekaz konparaten badoguz. Halan da ze gaur etxe-kooperatiba irla baten moduan lotu da gainpopulatuta dagozan Arabella, Zurbaran eta Zurbaranbarri auzoen artean. Guzurrea emoten dau auzo honetako kale estuen artean ibiltzean dagoan bakea eta lasaitasuna ikusita Bilbo erdian gogozala pentsatzea. Etxe gehienak familia bakar



"Etxadi honen arkitektua Tomas Bilbao izan zan eta beronek emon eutsen etxeeri dauken dotoretasuna"

batentzako eginda dagoz bakan batzuk izan ezik, eta aturrean lorategi edo baratz txiki bat daukie.

Auzo bitan bananduta dago, Lezamako bide zaharra kaleak auzo erditik banatzen dau eta. Lehenengo zenbakitik hogeita hamargarrenera beheko aldean dagoz eta beste guztiak goian. Esan daikegu Lezamako Bide Zaharra dala bertan dagoan kale bakarra eta horregaitik auzo honetako auzokoak dauken problema haundi bat aparkatzearena da, dana dala auzunearen beheko aldean badago aparkaleku txiki bat eurentzako.

ARAZOTXOAK

Etxe gehienak familia bakar batentzako eginda dagozan legez gaur egun etxe kooperatiba honen partaideak dauken arazorik haundiena etxeen mantenua da. Horretaz aparte eremu amankomunak mantentzea eta garbitzea euren erresponsabilidadea bere bada.

Halako auzo txiki eta familia arteko batean normala izaten da hartu emon sakonak sortzea, bai eta alkar bizitzak eragiten dabezan arazoak sofritzea bere. Etxadi honen historian zehar ez dira falta izan bai bateko bai bestelako gertaerak, baina alkar bizitza gehien nahasi eta okertu eban jazoera hogeita hamaseiko gerra izan zan. Ordutik etxe kooperatiba honek ez dau euki garai batean euki eban bizimodua. Azken urteotan gainera etxadira bizilagun barriak etorri dira eta horrek ez dau lagunduten garai bateko harremanak berreskuratuteko. Dana dala oraingo bizilagunak hasierako kooperatibaren izaera propioari eutsi gura deusie.



"AGIANTZA"


GIZARTE BAZTERKETAREN AURKAKO KONPROMISOA

GKE HORREK DROGEN MENPE DAUDENENTZAKO

LOKAL BAT DAUKA SANTUTXUN

Testua: J. Larrazabal

Hamaika urte daramatza 'Agiantza' gobernuz kanpoko elkarteak (GKE) bazterketa sozialaren kontrako borroka bizian. Beren-beregi drogen menpekoei laguntza ematen ibili dira urteotan eta horretarako, besteak beste, Santutxun lokal bat daukate. Lan handia egiten dute eta azken urteotan, zaintza eta laguntza arloa gaindituz, bergizarteratzeari begira ere jarri dira. Eta jardun horretan, hasieratik bertatik, boluntarioen eginkizuna ezinbestekoa izan da.



Asociación Agiantza Elkartea

1991n sortu zen 'Agiantza', Bilbo Zaharrean. Garai hartako arazo larri bati aurre egiteko sortu zen, non eta behar handiena zegoen tokian. Drogaren menpe bizi zirenei laguntza emateko, alegia. Horixe zen arazorik handiena eta horretan murgildu ziren baina 'Agiantza'ren esparrua bazterketa soziala oro har dela behin be ahaztu barik.

Harrez gero lan handia eginda daude. Berehalak drogazaleentzat abegi-pisu bi atondu zituzten, bata gizonetzkoentzat eta bestea emakumeentzat. Biak Bilbo Zaharra-San Frantzisko aldean. Geroago abegi-etxea, egunean zehar zerbitzua ematen duena. Hori Iturribide kalearen ondoan dago, Santutxu eta Solokoetxe artean.

Gure artean daukaten instalazio bakarra da. Baina badira gehiago, Gallarta inguruan elkarrekin bizitzeko daukaten etxea, esate baterako. Eta berriz gizarte sartzeko bidean daudenentzat beste pisu bat prestatu dute Bilbo erdian. Azkenik, 'unitate mugikorra' esaten dioten furgoneta ere erabiltzen dute kale gorrian etxerik gabe bizi direnei laguntza eman ahal izateko.

SANTUTXUKO ETXEA

Iturribide kaleko goialdean, duela sei bat urte abegi egoitza zabaldu zuen 'Agiantza'k. Egunean zehar bertan egoten dira drogazaleak eta, oro har, bazterketa soziala nozitzen dutenak. Emakume zein gizon, astelehenetik barikua bitartean eta goizeko lehen ordutik ilundu arte bertan daude euren egoeratik ateratzen laguntzeko programetan sartuta.

Pertsona horiek ez dira etxean bizi, eguna amaitu orduko bakoitza berera jo-

ten da eta. Batzuek drogak hartzen dituzten pertsonak dira, beste batzuk metadona programarekin dabilta drogak uztekoan. Badira arazo psikiatrikoak dituztenak edota alkoholarekin nahastuta dabilta-nak.

Santutxuko lokala gaur egun Bilbon dauden drogazale gune nabarmenen arteko bide erdian dago: Bilbo Zaharra-San Frantzisko eta Otxarkoaga hain zuzen.

BOLUNTARIOAK

Santutxuko abegi-etxe horretan, hasieratik bertatik, boluntarioak aritu dira lanean. Hala ere, normalean

ez da hori euren lana. "Gehien bat boluntarioak pisuetan ibiltzen dira laguntzen", azaltzen du 'Agiantza' elkarte boluntarioen arduradun Bego Sanchezek. Izan ere, GKE honek "hasiera-hasieratik euki ditu boluntarioak bere baitan, bai ekartzen dituzten balo-rengatik eta bai lanerako haien beharra dugulako. Euren laguntza barik proiektu asko ezinezkoak izango lirake".

Gutxi gora behera 30-35 izaten dira elkarte honentzat euren astiaren zati bat musutruk eskaintzen duten lagunak. Urtero-urtero, ikasturtearen hasieran, kanpaina egiten dute boluntario eske. "Egia esanda, krisia igartzen bada ere, guk oraingoz ez daukagu arazorik".

Boluntarioei 'Agiantza'k konpromiso, motibazioa eta astia eskatzen die, besterik ez. "Formazioa guk ipintzen dugu barne zein kanpoko ikastaroen bidez", argitzen du Bego Sanchezek.

Boluntarioen eginkizuna laguntzea da, hala bana-ka nola taldeka. Normalean pisuetan dagoen jendea lagundu behar dute. Asteazkenean zehar baldin bada, hezitzaileek ematen dituzten programetan egongo dira laguntzaile gisa. "Asteazkenean pisu-kideak oso lanpetuta daude", zehazten du Bego Sanchezek. Asteburuetan, ostera, boluntarioen zeregina da baztertuakin taldeka joatea antolatutako irtenaldietan laguntzera.

'Agiantza' elkartera hurbiltzen diren laguntzaileen soslaia markatuta dago. "Gehienak gizarte-karrerak ikasten ari dira eta batez ere emakumeak dira". Mutilen kopurua murrizten ikustean elkarteak kanpaina bereziak egin ditu eurak ekartzeko asmoz. "Lan taldeok mistoak dira baina gehien-gehienak neskek dira", nabarmetzen du bego Sanchezek.

ALDAKETA


Duela hamaika urte jaio zenetik hona egoera aldatu-



ta dagoela ikusten dute 'Agiantza'koek. "Lehen premiazkoa zen zaintza eta laguntza ematea baztertu sozialei eta, batez ere, drogazaleei. Baina denborak aurrera egin ahala baztertuak lagun horiek berriz ere gizarte sartzeko bideak garrantzia handiago hartu dute".

Hori dela eta, 'Agiantza'k hainbat proiektu jarri ditu abian. Besteak beste, tailerrak -baso hazitokia, ...- etorkinekin lan egiteko proiektuak, Gallarta aldeko etxea eta 'Ekotopia' mezulari zerbitzua.

"Pozik gaude hamaika urteotan egin dugun lanarekin eta emaitzekin. Helburuak lortzen ari gara eta horregatik orain gure lana aldatu behar dugu. Asistentziatik gizarteratzera aldatzen ari gara, gaur eguneko errealitateak ez daukalako zerikusirik duela hamaika urteko harekin", laburbiltzen du Bego Sanchezek.



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarte egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org



Egoitz Lorenzo:
"Bilatzen nuena bizi
ostean irla utzi nuen"

Gazte mahatsorria famatu egin da Telecincoko "Supervivientes" saioan egon izanagatik

Testua: Iratxe Ruiz

Nahiz eta egun Arabako kanpin batean lanean egon eta beraz, bertan bizi, santutxuara dugu Egoitz Lorenzo. Duela zenbait urte, Naturarekin harreman estua nahi zuelako hiria utzi zuen. Ospea gogoko ez duen arren, txit famatu bilakatu da azken hiletan telebista saio entzutetsu batean parte hartu baitu. Behin esperientzia hori bizi eta gero nahikoa zela erabaki eta lehengo bizimodura itzuli da.

Tele 5 kate pribatuak pasa den urtean bizi baldintza gogorretan irautean zetzan saioa emititzen hasi zen. "Supervivientes" edo "Robinsones" izenburupean zenbait pertsonak irla desertu batean elkarrekin bizi behar zuten. Artean ez geunden telebistan honelako saioren behin ere ikusita eta ikusle goaren harrera ezin hobea izan zen.

Saio horren dinamika gustuko izan zuen Egoitz Lorenzo. Egunkarian kastina egiteko datak ikustean jakin-mina eta esperientzia hura bizitzeko nahiak piztu zitzaizkion. Baina horretarako hainbat froga gainditu behar. Bilbon egin zen kasterako deitu zuten eta, haren ondoren, Madrilen egin zen probarako hautatu zuten.

Madrilen 32 pertsona bakarrik zeuden. Egin zizkioten galderen artean Gran Hermano saiora joango zen hura goraipatzekoa litzateke. Egoitzek "sekula ere ez" sendo batekin erantzun zuen eta arrazoen artean telebistan ateratzea gustatzen ez zitzaiola (oraindik ere ez du gustuko) azpimarratu zuen. Telebista saioaren arduradunek filmatu beha-

rra zegoela argitu zioten eta orduan berak esperientzia horren truke onartuko zuela esan zuen.

Izan ere, Seychelles irlan egoteko aukera paregabea suertatzen zitzaien. Artean Egoitz Lorenzo bazekien, ondo jakin ere, ez zirena eguzkitan eta hondartzan egoteko opor ordainduak. Indiko ozeanoko uharte bakarti hartatik bueltatu ostean bertan egoera latzak bizi izan dituela adierazten du beste edozeren gainetik.

UHARTEKO BIZIMODUA

Abenturazale honen esanetan, bizipena izugarria izan da baina gosea eguneroko kontua zen. Eguneroko goizeko bost t'erdietan jaikitzen ziren eta



"Telebistak ez du islatzen uhartean gertatzen dena"


arratsaldeko ordu bererako oheratu ohi ziren. Egunsenti goiztiarra eta iluntze goiztiarra beraz; irlan kokagunea kontutan hartuz arratsaldeko seiatarako ilunpetan baitzeuden.

Haserako egunak etxola eraikitzen eman zituzten. Lan gogorra baina gustura egindakoa. Eman zizkioten jakiak bukatu bezain pronto irlan barrena elikagaien bila abiatu beharra izan zuten. Arrantzak eta frutadun arbolek eskaintzen zizkioten jaki gehienak.

Dena den, Egoitz Lorenzo berak aitortzen duenaren arabera, irlan bertan hotel antzeko baten eraikitze lanetan zihardutenak ere bazebiltzan. Kamerak despistatuz gero, euren gura hurbiltzea erraza zen "Supervivientes" saioaren lehiakideentzat. Baita beraiengandik jaki eta tabakoa lortzea ere.

"Irlan bi kamara zeuden egunean zehar -diosku gazte mahatsorriak-. Gutako batzuk arrain bila joaten ziren, beste batzuek fruituak batzera abiatzen ziren. Kamerak bi talde horien atzetik joaten zirenez, kameraren objektibotik at geratzen ziren lehiakideak egon bazeuden. Horrela, ustez zeharkatu ezin genituen mugak hautsi egiten genituen".

Ihesaldi horietako batean harrapatu zituztela jakinarazi zioten programa telebistaz ikusten zutenei. Izan ere, "Supervivientes"eko kazetarien eta produktio langileen egoitza beste irla batean zegoen. Gauz goardia batek eta kamera batek zaintzaile lanak egiten zituzten, lehiakideen gaineko kontrola segurtatu ahal izateko.



A

Biktimganako Laguntza Zerbitzua

Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarikoko
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y Cooperación con la Justicia

"Madrilen bizitzen geratzeko aukera eman zioten baina lehengo bizimodura bueltatzeari aukeratu zuen"

zituzten! Tirabira horien inguruan Egoitzen kezka honakoa da: irlan egondako liskar oro eman dute telebistan, nahiz eta errealtatean haserre txikiak izan. "Telebistan atera ez den haserrealdirik ez da egon eta horiek pasatutako denboraren ehuneko txiki bat baino ez ziren", zehazten du gazte mahatsorriak.



HASERRALDI GUTXI
Kamera gizonak agertzen ziren bakoitzean lehiakideak jakinaren gainean zeuden eta, jakina, honek euren arteko harremanari eta egoerari berari ere bapatekotasuna kentzen ziola aitortzen du Egoitzek. Hala eta guztiz ere, haserrealdiak eta liskarrrak bete-betean grabatu

Egunero-egunero elikagaiak lortzeko abenturaz aparte, astero gainditu behar zituzten frogak zeuden. Hauek burutzen ziren lekura iristeko, saioan aipatzen ez den ibilaldi luze eta gogorra egiten zuten; bai itsasontziz bai oinez.


Egoitz irla uztera bultzatu zuten arrazoen artean, programaren arduradunek beraiekin izandako tratua dago: "Frogetan, besteak beste, akabatzen gintuzten". Beste alde batetik, lehiakideek ezer egin barik ematen zuten denbora luzea eta aktibitate eza ere salatzen ditu: "Aste osoa ematen genuen hurrengo frogaren zain".

Lehengo bizimodura itzuli

Egoitz Lorenzo beste lehiakideetatik desberdintzen zuena helburua bera zen. Esan bezala, bere helburua bertan egotea eta esperientzia bizitzea zen. Gainerako laguntzat, ostera, irabazle geratzean lortuko zuten diru sariak zuen garrantzi gehien. Madrilerako bueltatu aurretik bertako luxuzko hotolean hiru bat aste eman zituen, hori bai saria!
Behin abenturaren uhartetik kanpo, Egoitz Lorenzoren lagun eta hurbileko batzuek saioa uztean 'erratu zela' leporatzen diote, irabazle geratzeko aukera asko baitzituen. Madrilen bizitzen geratu nahi ote zuen ere galdetu zioten Telecincoko programako arduradunek, honela telebistako 'famatu' en mundu horretan sartzeko.
Kanpinean eta ahal duen neurrian era anonimo-



an irlara joan aurretik zuen bizimoduarekin jarraitzea hautatu zuen, duda egin barik. Haatik, kalean jendearen begiradak eta sinadura eskariak denbora luze batean behintzat ekidin ezin-go duen gauza dena jakin badaki.



e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

Eladio Montiel

"Toki gehienetan ez da behar beste baloratzen abesbatzen jarduna"

Duela berrogei urte heldu zen Otxarkoagara. Orduetik honakoa auzoko abesbatzari lotuta eman du. Bertatik euskal musika koralaren bilakaera ikusi du baina, batez ere, Otxarkoagan eta oro har gure inguruetan gertatu diren aldaketak igarri ditu. Palencian jaioa, mendizale amorratua, Otxarkoagako koruaz gain Basauriko Gaztelako etxekoa ere bultzatzen du. Eta abestiak abestu eta irakatsi ez ezik, sortu ere egiten ditu, euretarik batzuk euskarazko berbekin.

*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Non sortu zinen?

Aguilar de Campooren ondoko herrixka batean, Barrio Santa Marían. Palencian, hain zuzen.

Eta noiz etorri zinen Bilbo aldera?

Egia esanda oso txikia nintzela atera nintzen herritik. Hamabi urtekin Iruñera joan nintzen ikastera, Valentziara gero, Madriler, Amurrion ere etorri nintzen berandua-go, Leónera, El Escorialen soldadu hogeita zazpi urtekin eta, haren ostean, atzera ere nire herrira. Han Bilbora etortzea erabaki nuen. Hango baten eskutik etorri nintzen. 1960an Bilbon nengoan. Etxebarriko Bandas-eko lantegian hasi nintzen beharrean.

Eta Otxarkoagara?

Ezkundu eta guretzako etxe bila hasi ginenean Otxarkoagan aukera sortu zitzaigun eta etorri ere etorri ginen, 1962ean.

Zelako Otxarkoaga topatu zenuen?

Artean ez neukan haren berririk. Etorri eta hasi nintzen ezagutzen eta... hainbat gauza idatzi da Otxarkoagaren gainean baina niretzat gezur hutsak dira, prentsa orriak betetzeko modu bat. Hortik zehar badaude gurea baino auzo okerragorik. Egia da hemendik bi edo hiru ganorabako atera direla baina... Lantegietan beharrean zebiltzanak, AHVn, La Navalen, ... antzeko tokietan bizi ginen. Auzo honetako gauzarik txarrena izan da jende asko oso eremu txikian pilatuta bizi izan garela eta denok izan gara besteen ezagun. Gaur egun jendeak gehiago egiten du paso. Eta neu bertan ederto nago.

Auzora heldu berria zinela musikagintzan sartu zinen?

Garai hartan hemen, Elizaren inguruan kafetegiak zeuden eta hemen sortzen zen domekero 'giroa'. Garai hartako abadeak, Ondarroako Gorka Aulestiak, parrokiako abesbatzan laguntzeko harrapatu ninduen. Artean bazegoen taldetxo bat parrokiak kantatzeko, baina Aulestiak abesbatza sortu gura eban. Gabon bezperetan geunden...

Zelan 'fitxatu' zintuen abadeak?

Nire auzoko baten bidez, Bienvenido Rodriguez. Gaur egun gitarra katedraduna da Kontserbatorioan.

Ba zenuen musika formaziorik?

Bai, ikasketetan egindakoa. Horregatik Gorka Aulestia abesbatzaren zuzendaria zen baina nik 'paperen' ardura hartu nuen nire gain. Partiturak nire kontura gelditu ziren.

Zelako abesbatza sortu zen?

Eliza-abiesbatza peto-petoea. Mezetan eta egun berezietan kantatzeko baino ez. 1963ko San Jose egunean lehenengo kantatu genuen jendaurrean.

Zenbat zineten?

30-35, gutxi gora behera. Orain baino gehiago. Hala ere, egun jakin batzuetan 70tik gora batu gara, Santa Ageda bezperan kantatzeko esate baterako.

Noiz arte egon zen Aulestia?

Hiru bat urte egingo zituen eta gero haren ordeztu Jose Luis Atxotegi jarri zuten abade. Gaur egun Begoñako basilikan dago. Berarekin gauza handiagoak egiten hasi ginen eta nik alderdi teknikoaren ardurarekin segitu nuen.

Eta noiz hasi zinen zuzendari?

1973ean. Une hartan abesbatza gainbehera zetorren eta motibazio faltan geunden denok. Orduan Tomás García abadea hasi zen atzera ere abesbatza indartu nahian. Veracruz eskolako irakasle ere bazenez, handik hasi zen ikasleak abesbatzara ekartzen. Neskatilak ziren, jakina. Eta badakizu, neskatilak non, mutilak han. Gaztedi handia batu zitzaigun orduan. Eta niri esan zidan ea zuzenduko nukeen. 'Ederto -erantzun nion- baina neuk ez dut gauza handirik egingo nekata nagoelako'. Eta horrela hasi ginen beste behin.

Eta non egokitu zitzaizun debuta?

Basauriko abesbatza jaialdi batean. Ederra, benetan. Gero hortik Begoñako abesbatzen astea eta Bizkaiko Abesbatzen Elkarte (BAE) sortu ziren. Gurea talde beterranoetako bat da baina, aldi batean, talde berria gara, behin eta berriz jendea aldatzen delako. Hala ere beti egon gara harro Begoñara joan eta abesirik errepikatu barik kantatzen dugulako.

Jende arazorik euki duzue?

Gaur egun abesbatzako jende asko lehen ibilitakoa eta

atzera ere gurekin ibiltzen hasitakoa da. Asko auzotik kanpo bizi dira eta handik datoz entsaioetara. Eta orain jende berri gehiago dago 'txiripaz' etorri zaiguna. Normalean jendea 'arrastaka' ekarri behar dugu. Horregatik entsaioak ez dira oso 'militarrak', oso arau estuekin, lasaigoak baizik. Sarritan ere jende berria etorri aurretik beldurtuta dago, musika asko jakin behar dela pentsatzen dutelako. Ez dira konturatzen denok zerotik hasten direla.

Gazte jendea hurbiltzen da?

Batzuek uste dute abesbatzan sartzeko solfeo eta piano jakin behar duzula. Eta benetan behar den gauza bakarra da entzuten jakitea.

Eta ahots onik ez?

Emoitzazu pertsona bat belarri ona duena. Ahotsa urratuta badauka ere. Entzuten baldin badaki, balio zaigu, bestela...

Inoiz agindu diozu inori play-back egiteko?

Orain jende berriari ez diot probarik egiten. Izena galde-tu baino ez. Baina entsaio gutxi behar dira jakiteko bakoi-tza zelakoa den. Bide hori nahiago dut proba batekin jende-aldi txarra pasaraztea baino. Euki bai euki dut ahots ederreko mutil bat belarrien tokian zapata bana zeukana. Azkenean utzi egin zuen. Baina ez dut uste inor isilarazi edo bota dudarik.

Eta ahots gogoangarririk pasatu da abesbatzatik?

Gurekin ibilitako neska bat Vienan dago kantu ikasle. Beste bat, Estela, talde batekin dabil. Eta beste batzuek ABAOn jardun dute. Oso onak direnak joan egiten dira. Ezin diedanez ordaindu,... ja, ja.

Zenbat bider abesten duzue urtean?

Batzuk urterokoak dira: Ostiral korlak (2), Udaberriko kontzertuak (4) eta Begoñakoa (1). Eta gero beste mila. Gainera, Santa Agedan ere beti irteten gara eta lehen Olenzeroa ere egiten genuen.

Nortzuk dira gehiago abesbatzan, gizonak ala emakumeak?

Abesbatza guztietan emakume gehiago dago baina gure kasuan alde ikaragarria dago, Gizon gutxi daukagu.

Heldu zineneko abesbatza haren eta gaurkoaren artean alderik bai?

Ez dago konparatzerik. Lehen askoz be gehiago ginen, baino askoz prestakuntza gutxiagorekin. Eta horretan, neu lehena. Orain erraztasun handiagoa dago. Lehen anabasa ginen, denok etorkinak. Baina abadeak, mojak eta neu musika formaziodun bakarrak ginen. Orain jendeak modu naturalean hartzen ditu kantuak. Eta neuk eskarmentu handiagoa daukat. Gainera orduan euskarekin borrokatu behar genuen...

Hasieratik kantatu du euskaraz Otxarkoagako abesbatzak?

Hasieratik bertatik. Horixe duzu gure helburuetako bat, euskal musika korala sustatzea hain zuzen. Gainerakoak baztertu barik. Euskaraz gain gaztelaniaz, errusieraz, latinez eta beste hizkuntza batzuek abestu izan dugu.

Eta zein izan da urteotan abesbatzako kideen erantzuna?

Euskararekin arazo bakarra euki dugu, hasieran batez be: ondo irakurri eta ondo ahoskatu. Baina hori gaindituta daukagu. Gainera oraingo jende gazteak euskararekin lotura handiagoak ditu. Batzuek ondo hitz egiten dute. Neuk ikastarora egin nuen lantegian baina ez nion segidarik eman...

Nondik datorkizu musika zaletasuna?

Ikasten nengoenean piano ikasteko hautatu ninduten baina gero nekatu nintzen. Solfeoa, ostera, ezin errazago harrapatzen nuen.

Bizkaiko abesbatza zuzendari beterranoena ote zara?


Zaharrena behintzat bai. Eta denbora gehien daramana... ez dakit, ez dut pentsatu baina baleike...

Zuzendu ez ezik, musika egin ere egiten duzu, ezta?

Ba ote dago zuzendaririk musikan zeozer aldatzeko tentazioari eusten diona? Moldaketak egin behar dituzu sarritan abeslariak ezin dutelako kantatu jatorrizko moduan...

Baina kantuak sortu ere sortzen dituzu...

Bai, zeozer badaukat hortik, bai. Eta noizbait jendaurrean



A
K
R
A
K
A
D

ere kantatu izan ditugu, bai.

Eta horietarik batzuk euskaraz...

Ni gaztelatar peto-pettoa naiz baina hala ere abesti batzuk euskaraz goxoago egiten zaizkit. Hala ere, inoiz ez zait gustatu abestien jatorrizko hizkuntza aldatzea. 'Haurtxo polita' euskal kanta erdaraz kantatzea, esate baterako, abestiaren kalterako da.

Grabaketarik egin duzue?

Zeozer lehenengo aste koralean. Baina geu bakarrik zeozer egitea pentsatu ere ez dugu egin, koruko jendeak ez daukalako horretarako behar den astia.

Zer ekarri dio koruak auzoari?

Nire iritzian, auzoari ospe handien eman ahal zion taldea

da. Baina ez da horrela izan abesbatzari ez zaiolako behar adina garrantzia aitortu. Kultur mailan edo beste arlo batzutan beste batzuei eman zaie eta guri ez.

Gutxietsiak sentitu zarete?

Ez gaituzte behar beste baloratu. Baina hori auzo guztietako arazoa da. 'Ondarreta' eta beste hiru-lau abesbatza izan ezik gainerakoak ez gaituzte behar den bezala hartzen. Giza-harremanetan, ostera, Otxarkoaga abesbatza oso emankorra izan da. Hemendik makina bat ezkontza atera da. Elkarrekin haserretu gara eta elkarrekin aldarte onean eman ditugu urte asko.

Zein da Bizkaiko abesbatzen kalitate maila?

Gure antzera dabilta denok, hau da, lehen baino jende gutxiagorekin baina orduan baino hobeto kantatzen.

GALDERA LABURRAK

Abesti bat: Milaka ditut. Hainbeste daude... Denak.

Musikari bat: Guridi asko gustatzen zait.

Film bat: 'El día más largo'.

Janari bat: Makailaoa pil-pil eran.

Izen bat: José.

Liburu bat: Gaur egungo kontuen gainekoak, oro har.

Toki bat: Herri txiki bat mendien arteko haran batean.

Kirol bat: Ikusteko, futbola.

Mendia ala hondartza:

Biak, baina mendia jo eta ke.

Amets bat: Elkarren arteko istiluak behingoz amaitzea.

Kopako finala jokatuko ote du Athleticek?



EGOITZ (SANTUTXU)
Ez dakit. Horrela jarraitzen badu, bai. Bere jokoa behintzat ona da, bai ligan eta bai kopan.



IBAI (SANTUTXU)
Baietz uste dut. Aurten plantilla ona daukagu eta joko ona egiten ari dira. Finalera hel daitezke.



ITXASO (TXURDINAGA)
Egia esanda, ez dakit zer esan.



ELISABET (ARRIGORRIAGA)
Ez dot uste. Ez, ez. Ke ba! Ez dot askorik jarraitzen baina aspaldian oso txarto dabil. Ojala holan izango balitz.



IBON (SANTUTXU)
Niri futbola berdin dit. Bilbokoa izanda, Athletic onartu behar dut, baina, benetan, berdin dit.



AIORA (LEMOA)
Nik uste dut baietz. Optimista naiz. Oraingoz ondo goaz eta, gainera, euskaldunak gara, ezta?



AINARA (SANTUTXU)
Nik ez dakit asko futbolaz baina. Nahi, nahi dugu finalera heltzea baina ez gai horretan ez nago oso jarrita.

E
R
B
E
T
A
N

Zubi barria Boluetan

Metroak erabiliko duenaren zutoinak operazio zail baten bidez jarri zituzten Ibaizabalen gainean

Azaroaren 13 eta 14an eginiko operazio zail samar baten bidez, Metroak Boluetan erabiliko duen zubi berriaren lau arkuak Ibaizabaleko uren gainean jarri zituzten. Behin zutoinak behar bezala ipinita, haien gainean zementuzko ola bat kokatuko dute Boluetako geltokian dabiltzan trenek norabidea errazago alda dezaten.

Boluetako Zubibarri famatua izan da Bizkaian urte luzeetan. Azken urteotan, ostera, XVIII. mendeko eraikin horrek, errepide arrunta bilakatuta, bizimodu grisa badarama, hemendik aurrera izena ere gal lezake. Izan ere, egunokaz Boluetan bada zubibarririk, Metroarentzat egiten dagozana hain zuzen.

Azaroaren 13 eta 14 bitartean teknika berezi samar bat erabiliaz zubi berri horren oinarri izango diren lau arkuak Ibaizabal gainean jarri zituzten. Sistema Ricardo Morandi ingeniari italiarrari zor zaio eta Boluetako honen aurretik beste hiru bider baino ez da erabili.

Ibairen bi ibarretan arku erdi bi jarri zituzten, zutunik. Operazioaren gakoa zen arku erdiok apurka-apurka jaistea Ibaizabalen erdian elkar topatu arte. Makurrarazten zituzten bitartean eguraldi lasaia behar zuten, operazio zail hori arriskutan legoke bestela. Eta horrexek, eguraldi txarrak hain zuzen, atzerapena ekarri zuen. Lehenengo egunean, azaroaren 13an, astiro-astiro mugiarazi zituzten lau pieza handiak. Kontuan hartu behar da bakoitza 32 metro luze dela eta pisatu ere 155 tona pisatzen duela.

Lau arku erdiok elkar topatzeko egun bete eta erdi behar izan zuten. Hainbat kalkulu egin zituzten operazioa aurrera eraman ahal izateko. Gainera, ordenagailu batek goitik behera kontrolatu zuen lau arku erdion mugimendua, milimetro bat ere ez galtzeko.

Zubia Leonardo Fernandez Troyano ingeniariak diseinatu du. Lau arku-erdiok batutakoan Ibaizabalen gainean salto egiten duten arku erraldoi bi ikusten dira. Hamasei metro altu dira. Euren gainean zementuzko ola zabal bat sostengatuko da. 8,3 metro zabal izango da plataforma hori.



METRO ZERBITZUAK

Zubi berri horren gainetik Metroaren trenak igaroko dute, jakina. Baina oso garrantzitsua da zubi hori garaiz amaitzea Ezkerraldeko 2. lerroa abian jarri orduko. Izan ere, Ezkerraldeko trenak zerbitzuan jarriko direnean bost minuturo ibiliko dira. Hori horrela izateko, lerroaren amaieran, Boluetan alegia, norabidea aldatzeko edota itxaroten egoteko tokia behar zuten.

Orain arte erabilitakoa nahikoa da oraingo zerbitzuari eusteko. Ez ostera, zerbitzua bikoizteko. Horregatik, zubi berri honetatik trenek bide bikoitza eukiko dute ibaiaz bestaldera joateko. Honela, Bolueta eta Matiko-Azbarren trenbide zaharreko tunelen artean ehun bat metroko aldea eukiko dute egonean egoteko.

Gainera, Ezkerraldeko bigarren lerro hori amaitzeko Boluetatik Etxebarriraino eramango da zerbitzua. Jakina, horretarako ere zubi honek emango du bidea. Etxebarririko geltokia indarrean sartu orduko Metroak Plentziatik zein Sestaoko Urbinagatik Etxebarriraino zabalduko da.

Aurrerago, behin Ezkerraldeko lerroa erabat amaituta dagoenean, Metroa Basauriraino iritsiko da. Baina horretarako hamar bat urte beharko dira oraindik. Hurbilago dago Urbinagarako zerbitzu berria. Datorren udaberrian Boluetatik Sestaora Metroan joaterik izango dugu.

OTXARKOAGAKO UDAL ETXEBIZITZAK

-Testua: Ixaso Pérez

Gaia pil-pil dabil garaian Bilboko hainbat auzoetan etxea lortzea gatx samar gertatzen da. Horixe bera Otxarkoagan gertatzen da. Auzo honetan etxe berri asko eraiki da azken urteetan baina arazoa edo kezka udal etxebizitzetan dago.


Otxarkoagan 3.300 udal etxebizitza inguru eraiki ziren, eta apurka-apurka Bilboko Udala horiek saltzen joan da, esleipen prozesu baten bidez. Dagoeneko erdia baino gehiago salduta daude, eta bada esleipen prozesu horretan ezadostasunik sortu duen baldintzarik. Izan ere, etxebizitza hauei izaera asistentziala eman zaienez, hau da, egoera ekonomiko eta lan egoera okerrenekoei puntuazio gehiena ematen zaienez, sozialki gehien baztertuta dauden sendiak, desegituratuak eta giza asistentziaren behar handiena duten sendiek eskuratu izan dituzte.

Prozesu horren ondorioz, urteak pasa ahala Bilbo osoko bazterketa sozialaren metaketa gertatu da Otxarkoagan. Ghettoa alegia. Gainera, Hiri Alokairuen Lege berriak hala aginduta, etxebizitzan egin behar diren erreforma eta zerbitzu guztien gastuak maizter edo bizilagunaren esku geratzen dira, honek dakarren ondorioekin. Berez etxebizitza hauek zaharkituta daude eta kalitate gutxiokoa dira. Ez nolanhiko arazoa beraz.

Otxarkoagako familia elkarteak (AFO) mozio bat aurkeztu zuen urte honetako urtarileko Udalaren Osoko Bilkuran jorratzeko. Mozioan zera proposatzen zen: egun indarrean dagoen Etxebizitzaren esleipen sistemaren ordez berdintasun gehiago bermatuko lukeen beste bat ezartzea. Hala ere, sistema aldatu arren beste beharizan asko dago asetzeko, eta aldatzeaz gain bestelako neurri pizgarriak hartzea proposatu zuten.

AFOren proposamenak, berba gutxitan, honako hau eskatzen zuen: batetik, indarrean dagoen sistema eta bere baremazioa ezeztatu. Bestetik, esleipen sistema berri bat osatu, ondorengo ildoan arabera. Batetik, beheko solairu batzuk gordetzea, elbarritasun, adin edota bestelako arazoengatik mugikortasuna urritua daukatenek trukaketa egin ahal izateko, baina "zegoen alokairu prezio bera mantenduta".

Bigarren, 35 urte beharagoko gazteentzako etxebizitzaren %30a gorde, urteroko esleipenean. Eta Bilbon erroldatuta



dagoen edonork eskaera egiteko aukera eukiko luke (baldintza ekonomiko zehatz batzuekin: diru-sarrerak gutxieneko soldata baino 3,3 aldiz handiagoa ezin daitekeela izan; etxebizitza propioaren jabe ez izatea; ...). Era berean, bertin dio zein egoera zibilean dagoen eskalea edota zein den bere sendiaren osaketa. Horretarako ondo argitaratuko dituzte deialdi publikoak. Hortik ateratzen den zerrenda urtero eguneratuko litzateke. Urtero zozketa publikoa egingo litzateke

eskale guztien artean.

Sistemaren gardentasuna bermatzeko, Otxarkoagako Sendien Elkarteak era zuzenean parte hartuko luke esleipen sistema berri horren burutze prozesuan.

JARRERA ARGIRIK EZ

Beste behin ere aurpegia eman ez eta mozioa Udal Etxebizitzako Kontseilura (edo Batzordera) desbideratzea leporatzen dio AFOk Udalari. "Horrela ez du gaiaz ezberriak egiten eta ez du bere jarrera argi azaltzen". Are gehiago, AFOk dio ez diotela azaldu zergatik ez zuten Osoko Bilkuran sartu, esleipen sistemari buruz aritzeko Batzorde Bereri bat eratu duten arren.

Antza, aurretik zegoen sistemari eutsi egin diote Udal Etxebizitzakoek aldaketa txikiaren batekin, baina ezaugarritasun asistentziala mantenduaz, auzoko elkarteekin bildu eta eztabaidatu barik. Hau da, auzotarren ustez, ez da aurrera eramaten benetako etxebizitza politika bat.

ETEKINEZ ETXEAK ERAIKI

Gutxi gora behera bi mila udal etxebizitza gutxi gora behera saldu ostean AFOk aldarrikatzen du salmenten dirua etxe berriak egiteko erabil dezatela. Izan ere hainbeste etxebizitza era espekulatiboan saldu eta gero, hortik ateratako milioiak metatu ordez etxebizitza berriak eraikitzen gasta ditzatela eskatzen dute. Baita urteetan zehar alokairutik ateratako sosal inbertitzea ere, Bilboko biztanleok dauzkagun beharrezan itenbidea bilatzeko.

Berriro ere alkateari bilera egiteko eskaera egin zioten baremoaren gorabeheraz hitz egiteko eta honen inguruan zein izan behar zen jarraitu beharreko politikoa zehazteko. Baina, AFOkoek diotenez, "beste behin ere erantzunik ez".

Hemen zure publizitatea
94 473 54 48

PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!
SAAK

ADI Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza

MAHATSBERRIAK

MAHATSBERRIAK

Artxandako tuneletako segurtasuna ordaintzeko bi mila milioi pezeta gastatuko du Diputazioak

Txori-herritik Bilborainoko zuloak egiteko leherketak amaitu dituzte


Bizkaiko Diputazioak 2.000 milioi pezeta gastatu behar ditu Artxandako tuneletako segurtasuna bermatzeko. Tunelak, Txori-herriren eta Bilboren arteko komunikabide artezak, enpresa pribatu baten esku egongo badira ere, foru diru kutxetatik aterako dira

segurtasun arlorako sosak. Izan ere, Diputazioaren iritiz, gehiegi izango zen gastu horiek ere enpresen bizkar lagatzea. Bestalde, Artxandako bi alderdiak lotu behar dituzten tunelak egiteko leherketak amaitu direla jakin arazi dute.

Gauza jakina da Artxandako tunelak egiteko proiektua lehiaketa publikoan atera zuela Diputazioak. Enpresa irabazleak hiru tuneleko sare bat eraiki beharra hartu zuen bere gain, Salbe, Deustuko Ugasko eta Txori-herri modu artezean komunikatzeko. Ordainean, irabazleak urte batzutan tunel horietan ezarriko den bide-saria jasotzeko eskubidea dauka.

Obrak aurrera joan ahala, ostera, arazoak sortu ziren. Batetik, Artxanda mendiko lurra ez ei zen hasieran pentsatu bezain sendoa. Ondorioz, behera etortzeko arriskua handitu egin zen eta istripurik ere gertatu zen. Horren ildotik, lanon abiada lasaitu behar izan zuten, zuloak egiteko beharrak mantsoago eginaz segurtasuna bermatzeko.

Gainera, hasierako planak aldatu eta hiru puntuen arteko hirukiaz gain -Txori-herri, Salbe eta Ugasko batzen duten hiru tunelak- segurtasun irtenbideak ere zulatu behar izan zituzten. Horrela, inoiz istripurik gertatuko balitz, barruan geldituko lirakekeen autoetako pertsonak beste bide bat eukiko lukete kanpora onik ateratzeko.



barruan daude. Baita Salbe eta Ugasko bitartean batzutan lur azpian eta beste batzutan mendi magaletik joango den errepidean zarataren kontrako pantailak ipintzearen gastuak ere.

Gastu guzti horiek, Diputazioak berak aitortu duenez, 2.000 milioi pezeta inguru izan daitezke. Dirutza galanta, duda barik. Are galantago, enpresa pribatu batek kudeatutako errepidea dela kontuan hartuta.

Bestaldetik, Diputazioak berak jakin arazi duenez, Artxanda mendia zulatzeko leherketak amaitu dira. Denbora luzea eman dituzte eraikitze lanetan lehergailuak eztanda arazten zuloak egiteko. Begoñabarra-ko auzoak kexatu izan dira batzutan euren etxeetatik oso hurre leherketa itzelak egin dituztelako.

GEROAGOKO SEGURTASUNA

Aldaketok izan dira, hain zuzen, Diputazioak segurtasun gastuak bere gain hartzeko erabakiaren arrazoia, foru arduradunek eurek diotenez. Izan ere, haien iritiz, gehiegizkoak dira enpresak bere gain hartutako gastuak hauek ere bizkar berean zamatzeko.

Horren ondorioz, tunel eta errepide berri horrek beharko dituen segurtasun gastuak Diputazioaren esku joango dira. Besteak beste, aseguruak atal honen

Lanbroa

ARTESANIA LOIDI
Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

berton MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

Lutxo Egia
«Hedabideek garrantzi gehiago eman diote Gabriel Aresti sariari olerki liburuari baino»

KARMELO ELORRIAGA, MAHATSERRIKO BASERRI GIROA AKORDUAN

Txetxu Rajo:
«Atletik eta herriaren arteko lotura ez da inoiz galduko»

hartu berton etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia: Solairua:
Herria: Herrialdea: Posta Kodea:
Telefonoa:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

KARMELO IKASTOLA BERRIA EGITEKO LEHEN URRATSA

Bilboko Udalak lokal berria Hermanitas de los Pobresen egiteko aukera aztertuko du



Bilboko Udaleko talde politiko guztiak bat datoz Karmelo ikastolarentzat lokal berri bat eraikitzeke premiaz. Ikastola berri hori non egin izan da orain artean arazoa. Azaroaren 20an Hirigintza udal batzordeak Hermanitas de los Pobresen ondoko orube batean egin ote daitekeen aztertzea erabaki zuen. Horretarako Surbisa udal enpresara igorri du proiektua. Gaur egun Karmelo ikastolako ikasleak -400en bat- Remigio Gandasegi eta Menendez y Pelayo kaleetako lokal banatan daude.

Ikastola mahatsorrik zaharrena dugu Karmelo. Hogeita hamazortzi urteko ibilbide luzea darama aldean. Gaur egun Santutxuko eskola publikorik handiena da, ikasle kopuruari begirata, 385 ume baitaude bere geletan. Halan eta guztiz be, arazo larria pairatzen du ikastolak, ez baitu eraikin propiorik.

Ikasleak bi tokitan daude banatuta. Txikerrenak, bi eta hiru urtekoak, Remigio Gandasegi kaleko lokaletan

daude. Etxebizitza batzuetako lonjak dira eta ez dira egokiak arazoak dauzkatelako. Besteak beste, argi naturalik eza.

Gainerako ikasleak Menendez y Pelayo kaleko lokaletan daude. Hauek be, aurrekoak bezalaxe, etxebizitza eraikin baten beheko lokalak dira eta, ondorioz, heziketa egokia emateko arazoak eta trabak handiak izaten dira. Soinketa eskolak ematerakoan, esate baterako. Gainera, ikasleen segurtasuna ere ez da behar bezain ona. Eta ikastola bera bi tokitan egoteak berak koordinazio eragozpenak sortzen ditu.

ORUBE BATEN BILA

Karmelo ikastolako zuzendari Karmele Aurrekoetxeak dioen legez, "txosten teknikoek argi eta garbi utzi dute oraingo lokaletan txarto gaudela. Beharizan eta arazo handiak daude. Horregatik, ikastola berri bat egiteko lanean hasi ginen".

laz Hezkuntza Ordezkaritzan euren eskabi-dea aurkeztu zuten, baita erantzun ona jaso ere. "Bat zetozen ikastola berriaren premiaz eta eraikitzeke gastuak ordainduko zituztela esan ziguten. Baina horretarako 8.000 metro karratuko eremua lortu behar genuen". Asmo horrekin Udalarekin harremanetan jarri ziren. Bilboko Udaleko Hirigintza sailak Mina del Morroko orube bat eskaini zuen, baina ez zuten onartu. "Hezkuntza Ordezkaritzak berak ezetza eman zuen, orube hori beste eskola baten ondo-ondotan dagoelako", argitzen du Karmele Aurrekoetxeak.

Karmelo ikastolakoak lanean segitu zuten eta bestelako aukerak aztertu zituzten. Besteak beste, Solokoetxeke eskolara -gaur egun Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) institutua- aldatzearena. "Baina arrazoi asko zirela medio ezetz esan genuen. Inguru honek DBHko euskarazko zentro bat galduko luke horrela", dio Aurrekoetxeak.

IKASTOLA ONDOAN

Arazoak ikusita, eta Menendez y Pelayo kaleko lokalak ondo-ondok Udalak orube zabal bat urbanizatu behar zuela jakinda, Karmelo ikastolak lanari ekin zion. Hermanitas de los Pobres alderdi horretako udal planak oso aurreratuta daudenez -erauzgailuak beharrezko dagoz aspalditik-, ikastolak arkitekto bati ikastola berrirako tokirik egongo ote zen aztertzeko agindu zion.

Arkitektoaren erantzuna baiezkua izan zen. Eta aukera bi eman zituen. Hala ere, aukera bi horiek oraingo planetan aldaketak eragiten dituztenez, Bilboko Udalak begi onez ikusi beharko lituzke. Proposamenetako batek egin behar diren etxebizitzak 'ikutzen' ditu eta besteak ondoko berdegunea. Batak zein besteak ondorioak ekarriko lituzke.

Azken hiru astetan Karmelo ikastolako ordezkariek Bilboko Udaleko talde politikoekin batu dira, banan bana, euren premiak eta proposamenak azaltzeko. Alderdi guztiek aitortu dute ikastola berria eraikitzeke zilegitasuna. Beste kontu bat izan da non egin.

Hirigintza zinegotzi Ibon Areso (EAJ) hasieran uzkur agertu bazen ere, azaroaren 20ko udal batzordean, oposizio taldeen jarrera ikusita, ondo iritzi zion ikastola berriaren proiektua Surbisa udal enpresara bidaltzeari. Surbisa da Atxuri eta Santutxu arteko alderdi horren urbanizazio lanen kontrola daramana, obren ardura lizitazioa irabazi zuen 'Antiguo Berri' enpresarena baita. Surbisako



kontseiluan aztertuko da Karmeloren proposamena eta, onartzekotan, udal planetan egin beharreko aldaketak.

DUELA SEI URTE

Karmelok egindako proposamenak Menendez y Pelayo kaleko lokaletatik oso hurre dagoen toki batera aldatzea ekarriko luke. Aldapa baten goialdean ikastola jarriko litzateke eta beherantz, mailakatuta, beharrezko jolastoki eta gainerako instalazioak.

Gainera, aldapa horren behealdean eraiki behar diren kirol instalazioak -igerilekuak- eskola orduetan ikastolak erabiliko lituzke. Eskola orduetatik kanpo, hala ikastolako jolastokiak nola kiroldegia herritar guztientzat zabalik egongo liriteke.

Hermanitas de los Pobreseko ibarra, Santutxuko atzealdearen eta Atxuriko Enkarnazio elizostearen artean dago. Bilboko Udalak alderdi horretarako planak sarritan aldatu ditu. Lehenengo Plan Orokorrak berdegune gisa sailkatu zuen. Geroztik, asmo horiek itxuraldatu dira eta lorategien eremua nabarmen murriztu da etxebizitzaren mesedetara. Izan ere, Bilboko Udalak enkantean atera zuen ibar osoaren urbanizazioa bertan egingo ziren etxebizitzaren etekinen truke.

Guztira, 55.000 metro karratuko esparrua da, eurentarik 30.000 metro karratu Udalarenak. 512 etxebizitza egingo dira, horietako 293 babes ofizialekoak eta gainerakoak libreak. Etxeok bi eta zazpi pisu bitartekoak dira.

Parkea 18.000 metro karratuko zabalerakoa izango da, eremu osoaren herena. Hala ere, gehien-gehiena aldatsak. 4.000 metro karratu merkataritza jardunerako gorde ditu Udalak eta beste 3.000 metro karratu bertan Bilbao Kirolak-IMDK egin behar dituen igerilekuetarako.

ZURE PUBLIZITATEA

BERTON

94 473 54 48

SUGEA TABERNA

Sugea taberna

Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

ALDAMIN (1.362 m.) Lanbreabetik

Zeanuritik Barazarrerako bidean, bi kilometro-tara gutxi gora behera, 'Barazarko zentrala' adierazten duen bide seinalea ikusten dugunean, errepide estu batetik sartuko gara eskuinalderantz. Laster elektra-banagailua igaroko dugu 'Undurraga' auzora sartzeko. Hemen ezkerretarako joko dugu eta bi kilometro beranduago, gutxi gora behera, zementuz egindako aterpe antzeko bat ikustean eskuinalderako bide asfaltatua hartuko dugu. Laster 'Lanbreabe' auzora (A) helduko gara. Hemen utziko dugu autoa, elektra-zentralaren ondoan.


Elektra-zentral horren eskuinaldetik, errekatxo ondotik ateratzen den pista zabaletik hasi ginen gorantz. Laster hoderiaren azpitik pasatuko gara eta, aurrera jarraituta, 'Atxondo' auzora iritsiko gara. Gaur egun ez da inor bertan bizi. Hodieria eskuinaldean ikusten da, baina guk ezkerretara joko dugu bi baserri artean pasa eta ia desagertuta dagoen pistatik igoz beste baserri baten ondotik joateko. Hemendik aurrera ez da hoderia gehiagotan ikusiko.

Guk ezkerretik eta gorantz doan bide edo bidexka hartuko dugu pista zabalera heldu arte. Pista horri segika ezkerretarantz eta gorantz joan gara beti. Biragune batzuk egin eta gero harkaitz-pean egongo gara. Pistak eskuinalderantz egiten du harkaitza inguratzeko. Toki honetatik (B) 'Lekanda' mendia ikus dezakegu, eta aurrerago 'Mendizabal' urtegia eta 'Baskonia' mendi taldearen aterpea ikusiko ditugu.

Aurreratxoago joanez, hala lurrean nola zuhaitz enborretan marka zuri-gorriek norabidea erakutsiko digute. Ikur horiei jarraituz lehenengo alartzeen artean eta gero pagadi baten zehar igoko gara 'Aginalde' izeneko aterpera heldu arte. (C)

Hemendik landan zehar joango gara eskuinalderantz eta gorantz. Hiru aterpe handi pasatuko ditugu, hirugarrena Santutxuko Karmelo parrokiarena (D). 'Aldamin' alderdian gaude eta aurrez aurre izen horretako mendia daukagu. 'Aldamin' ezkerretatik inguratu behar dugu. Horretarako esandako azken aterpe horren atzean dagoen lepora gaindituz 'Egirinaotik datorren bidexka aurkituko dugu. Hori zuri-gorritz margotutako ikurraz dator markatuta. Bidexka horri segika eta aldapa gogorrean gora 'Aldamin' atzeko partera helduko gara, 'Aldaminoste' lepora hain zuzen. Hona ailega baino ehun metro lehenago 'Igitai' (E) izenez ezagutzen den trikuharria dago. 'Aldaminoste' lepotik ezkerretara begiratu Gorbeko gurutzeta ikus daiteke.

Guk eskuinalderantz eta harri artean igoaz 'Aldamin' mendiko tontorrera iritsiko gara laster. Harri-pilaz egindako meta antzeko baten ondoan, txartel-kutxa bi daude.



JAKINGARRIAK

Iraupena: Guztira, bi ordu eta laurden.
Bidean ikusi genituen zuhaitzak:
 280-400 m: Pinu, urritza, gaztainondo, haritza, haltza, nekosta.
 400-600 m: Alartze, haritza, pinua, gorostia.
 600-800 m: Alartze, haritza, pagoa, elorri zuria.
 800-1000 m: Pagoa, elorri zuria, hagina.

GAZTEDIKO BELAUNALDIAK BATEGINIK ARRIAGA ANTZOKIAN DANTZAN

Testua: *Arrate Díez*

Gaztedi dantza taldeak "Eusko ederti belaunaldiz belaunaldi" izeneko dantzaldia eskaini zuen Arriagan azaroaren 4an. Antzokia jendez gainezka jarri zuen ekitaldi erraldoi hau 50. urteurrenaren ospakizunei amaiera emateko ikuskitu hunkigarria bihurtu zen. Hirurogeiko hamarkadan, Gaztedi dantza



Dantzariak protagonista.

Gaztediren lehenengo mende erdian ehunka eta ehunka lagun igaro dira bertatik. Denek eman dute apur bat taldeak aurrera egin zezan. Hurrengo mende erdian ere horrela izango da, seguru.

Gaztediren ikurrin eta armak. Zelai batean jarrita, taldearen bandera eta armak dagoz. Berrogeita hamar urtetako gogoaren isla.



asmoa behin ikuskizuna amaituta.

Arriagako ekitaldi hau Gaztedin izan diren belaunaldi guztien dantzaldia izan da, hain zuzen. Bertan bildutakoen esanetan, "ikuskitu hunkigarria bihurtu zuena, belaunaldi ezberdinetako dantzariak eszenatokian bat egin zuteneko momentua izan zen". Izan ere, hirurogei urtetik gorako dantzariak hartu zuten parte dantzaldian. Urteetan zehar hasierako belaunaldi hauen ekarpena ezinbestekoa izan da taldearentzako eta ekitaldiaren tarte batean omenduak ere izan ziren.

Arriagako ikuskizun hau, Aitziber Irurtia aurtengo Aste Nagusiko pregoilariak, eta Aitor Mazo aktoreak aurkeztu zuten; haiek biak Gaztedi dantza taldeko kideak izandakoak, hain zuzen.

Ekitaldian, dantzariak gain, Ibon Koteron albokaria, "Mairuek" Bilboko erraldoien konpartsa eta Euskaria abesbatza ere egon ziren. Gainera, hogeita lau emakumek "Andra Bigira" izeneko gazte belaunaldientzako jota estreinatu zuten, Jabi Erizeren koreografia eta Pablo Sarasateren musikarekin.

taldeak urterik urte Arriaga antzokian "Eusko Ederti" izenez ezagutzen zen dantzaldia eskaintzen zuen. Gainera, halako ekitaldi batean, hain justu, gaur eguneko Gaztediren ikurra sortu zen. Ekitaldia hain izan zen gustukoa publikoarentzat, ezen ez zuen lekutik mugitzeko




**GAZTEDIKO BELAUNALDIAK BATEGINIK
ARRIAGA ANTZOKIAN DANTZAN**

Arriagako oholztan, besteak beste, Gaztediko dantzariak "Maskarada" egin zuten. Iparraldeko aratuste-ohitura hori lehen aldiz bere dimentsioguztiek Hegoaldean egin duen taldea dugu Gaztedi. Duela hamar urteko urrats nabarmen horrek ezin zuen falta mendeko jaialdian.



Luzaideko dantzak. Gaztedik Euskal Herri osoko dantzak suspertu eta zabaldu izan ditu bere historia luzean zehar.



Dantzariak ahalegin betean. Bestela ezin izan eta, Gaztediren jaialdia euskal dantza euki zuen protagonista nagusia. Horixe delako Gaztediren izaeraren eta jardunaren ardatza.

**Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa
2001**

Abenduaren 16an Anoetara joateko autobusa
Asapalaren eskutik

Etorri gurekin!


deitu 94 473 54 48 edo asapala@euskalnet.net
postara idatzi

INMOBILIARIA
Gelaya

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA -
SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfona. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Arriaga bete jendearen txalo zaparrada handien artean mendeko lanaren lore sortak banatu ziren, dantzariak oholztan gainean zeudela. Atzean, Bilboko 'Mairuek' erraldoiak, ikuskizunean ere parte hartutakoak.



San Migel. Bizkaiko dantzak ere ezin ahaztu Gaztedikoek. Eurak be Arriaga antzokian egon ziren.



Arriagako ekitaldian parte hartutako guztiak antzokiko eskaileratan elkartu eta argazkia atera zuten. Gaztedi dantza taldeko belaunaldi den-denak daude erretratu honetan ordezkaturak.



Lehenengo belaunaldiko dantzariak bazkaria egin zuten. Elkarrekin lehenengo garaietako aldarte onak gogora ekarri zituzten. Eta gero denak batu ziren argazki honetan sasoiko daudela argi eta garbi erakusteko.

horoskopoa



Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Sarritan diñozu egin behar dozula baina oraindik ez dogu ikusi. Bene-benetan zabiltz ala berbalapiko hutsa zara?



Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Lasaixeago zabiltz azkenaldion. Eta ez dakizu zelako lasaitua hartu daben zeure inguruan dagozanak.



Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta... lau. Herri jakinduriak aspaldian esan eban eta zu ez zara enteratu.



Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Dekozun diru guztia gastatzekotan ei zagoz. Hoba dozu apur bat gordetea eta beste ondoko horri diru gehiago ipinteko esatea.



Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Kirola gustetan jatzu, bai. Baina badakizu telebisiñoan ikusteaz aparte egin be egin leikela, ezta?



Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Begizuri baten atzetik ei zabiltz. Ederto dago baina kontuan euki kanpoko itxurea ez dala inportanteena. Halan diño, behintzat.



Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Mosumerkea zareala zabaldu da handik eta hemendik. Izango ete da zapatu gaueko emozioaren ondorioz?



Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Saldu ez zara saldu, lasai egon. Baina zeure printzipioak kolokan laga dozuz. Inkoherentziagaz bizitzen ikasi beharko dozu, gainerakook bezela.



Sagittarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Putz eta putz egin arren kandela guztiak amata ezinda zabiltz? Urte larregi bete dozuz, lagun.



Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Bai, mahatsorri esaten doskue baina berandu zatoz hona bendimietan. Aspaldian batu zan Begoñako mahatsa.



Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Amatxuri paga eske zatoz? Zoaz antzarak perratzera, mutilzahar lotsabako hori!



Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Beste inori 'papardo' esan baino lehen galdetu egizu ea kostaldekoa ete dan. Eta ipini egiozu izotz gehiago begi ubeldu horri.

agenda

ABENDUAREN 6-9
DURANGOKO AZOKA.

ABENDUAREN 13
KONTZERTUA. KAOTIKO ETA 4 ITZAL TALDEAK. KAFE ANTZOKIA. GAUEKO 10ETAN. 800 PZTA.

ABENDUAREN 13
ZINEMA EUSKARAZ. "KE ARTEKO EGUNAK". SORGINTXULON. GOIZEKO 10ETAN ETA ILUNTZEKO 8ETAN.

ABENDUAREN 14
KONTZERTUA. RUPER ORDORIKA. KAFE ANTZOKIA. GAUEKO 10ETAN.

ABENDUAREN 15
KAFE ANTZOKIAREN URTEURREN JAIA.

ABENDUAREN 18
PALESTINAREKIN ELKARTASUN GAUA. KAFE ANTZOKIA. GAUEKO 8ETAN.

ABENDUAREN 20
ZINEMA EUSKARAZ. "TASIO". SORGINTXULO. GOIZEKO 10ETAN ETA ILUNTZEKO 8ETAN.

ABENDUAREN 21
SANTO TOMAS EGUNA. AZOKA ZAZPI KALEETAN.

ABENDUAREN 24
OLENTZERO.

ABENDUAREN 27
KONTZERTUA. FITO Y LOS FITIPALDIS. KAFE ANTZOKIA. GAUEKO 10ETAN. 1.800 PZTA.

ABENDUAREN 28
HERRIRA PLATAFORMAREN MANIFESTAZIOA.

ABENDUAREN 28
KONTZERTUA. BENITO LERTXUNDI. KAFE ANTZOKIA. GAUEKO 10ETAN.

